| | |
|---|---|
| 31/2026 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIEN ESKALAKO LAN-POLTSAN DAUDEN PERTSONEN ZERRENDA ARGITARATZEN DUENA, ENPLEGU PUBLIKOAREN SALBURUORDEAREN 202/107 EBAZPENAREN IRIZPIDEEN ARABERA BERRANTOLATU OSTEAN. | RESOLUCIÓN 31/2026, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO, POR LA QUE SE PUBLICA EL LISTADO DE LAS PERSONAS INTEGRANTES DE LA BOLSA DE TRABAJO DE LA ESCALA DE TÉCNICO/TÉCNICA DE EDIFICACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS TRAS LA REORDENACIÓN CONFORME A LOS CRITERIOS DE LA RESOLUCIÓN 2025/107, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO. |
| Lehenengoa.- Enplegu Publikoko sailburuordearen urriaren 15eko 2025/107 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzu-prestazioak emateko FUNTZIONARIOEN lan-poltsak integratzeko eta berrantolatzeko irizpideak ezarri ziren. | Primero.- Mediante Resolución 2025/107, de 15 de octubre, de la Viceconsejera de Empleo Público, se establecen los criterios para la integración y reordenación de las bolsas de trabajo de PERSONAL FUNCIONARIO con las que atender las prestaciones de servicio de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. |
| I. eranskinean, bigarren artikuluan, eskala bakoitzeko lan-poltsako kide izateko beharrezko baldintzak ezartzen dira, eta hirugarren artikuluan, berriz, lan-poltsa osatzen duten langileei dagokien ordenan lortutako puntuazioak, eta berdinketa hausteko irizpideak baita ere. | En el Anexo I, artículo segundo, se establecen los requisitos necesarios para ser personal integrante de la bolsa de cada escala y, en el artículo tercero, las diferentes puntuaciones de cuya suma se obtiene el orden correspondiente del personal integrante de la bolsa, así como los criterios de desempate. |
| Hirugarren artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren hautaketa-prozesuko puntuazioak honako hauek dira: | Las puntuaciones del proceso selectivo a las que hace referencia el apartado segundo del artículo tercero son las siguientes: |
| - a) apartatuan adierazitakoak prozesu berezietako azken kalifikazioen behin betiko zerrendako puntuazioak dira, oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko puntuazioen baturaren emaitza, euskararen ezagutza kanpo utzita. Gutxieneko puntuazioa 60 da, eta gehienekoa 200. | - Las indicadas en el apartado a) son las puntuaciones de la relación definitiva de calificaciones finales de los procesos especiales, resultado de la suma de las puntuaciones de la fase de oposición y de la fase de concurso, excluido el conocimiento del euskera. La puntuación mínima es 60 y la puntuación máxima es 200. |
| - b) apartatuan adierazitakoak salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen behin betiko zerrendako puntuazioak dira, merezimenduen baturaren emaitza, euskararen ezagutza kenduta. Gehienezko puntuazioa 100 da eta gutxienekoa 0. | - Las indicadas en el apartado b) son las puntuaciones de la relación definitiva de calificaciones finales de los procesos excepcionales, resultado de la suma de los méritos, excluido el conocimiento del euskera. La puntuación máxima es 100 y la puntuación mínima es 0. |
| Argitaratutako lan-poltsa bakoitzaren zerrendan, 3.1. artikuluko puntuazioa adieraziko da "aurreko puntuazioa" zutabean, 3.2 a) edo b) artikuluko puntuazioa "berrantolaketa puntuazioa" zutabean eta "guztizko puntuazioa" zutabean, berriz, hurrenkerak zehazten duen bien batura. | En el listado de cada bolsa de trabajo publicado se indicará en la columna “puntuación anterior” la puntuación del artículo 3.1, en la columna “puntuación reordenación” la puntuación del artículo 3.2 a) o b) y en la columna “puntuación total” la suma de ambas que determina el orden. |

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

| | |
|---|---|
| Beraz, Ebazpen hori betez, bigarren artikuluan adierazitako irizpideak betetzen dituzten langileak sartzen dira, hirugarren ataleko irizpideak aplikatzearen ondoriozko puntuazioarekin. | Por lo tanto, en cumplimiento de la citada Resolución, se integra al personal que cumple los criterios indicados en el artículo segundo y con la puntuación resultante de aplicar los criterios del apartado tercero. |
| Bigarrena.- I. eranskin horretako laugarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera, lan-poltsan dauden langileek ezarrita dituzten egoerari eta lehentasunei eutsiko diete; lehen aldiz integratzen diren langileek, aldiz, prest egoeran sartuko dira, eta honako aukera hauek lehenetsita izango dituzte: | Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el apartado cuarto de dicho Anexo I, el personal que ya estuviera en la bolsa de trabajo mantendrá la situación y preferencias que tenga establecidas, en cambio, el personal que se integra por primera vez lo hará en situación de disponible y tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones: |
| - Edozein prestazio mota<br>- Edozein lanaldi<br>- Edozein ordutegi<br>- Edozein eremu geografiko | - Cualquier modalidad de prestación<br>- Cualquier jornada<br>- Cualquier horario<br>- Cualquier zona geográfica |
| Ebazpen honetan ezarritako eskuragarritasun-egoera eta lehenespenez ezarritako lehentasunak aldatu ahal izango dituzte interesdunek, Lan Poltsen Atariaren bidez. | La situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo. |
| Aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik aurrera izango dituzte ondorioak. | Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen. |
| Hirugarrena.- Aipatutako 202/107 Ebazpenean xedatutakoaren arabera, zerrendak Lan Poltsen Atarian argitaratuko dira, eta lan-poltsetan lehen aldiz sartzen diren langileei SMS bat bidaliko zaie esteka batekin, lan-poltsaren, araudi erregulatzailearen eta lan-eskaintzak jasotzen hasteko beharrezkoak diren izapideen parte direla jakinarazteko. | Tercero.- De acuerdo a lo dipuesto en la referida Resolución 202/107, los listados se publicarán en el Portal de Bolsas de Trabajo y al personal que se integre en la bolsas de trabajo por primera vez se le enviará un SMS con un enlace en el que se le informará que forma parte de la bolsa de trabajo, de la normativa reguladora y de los trámites necesarios para empezar a recibir ofertas de trabajo. |
| Laugarrena.- Lan-poltsak kudeatzeko datu pertsonalen tratamendua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) egingo da, "Hautaketa-prozesuak" izenekoan. Enplegu Publikoaren Zuzendaritza izango da organo arduraduna, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, bai eta Enplegu Publikoaren Zuzendaritzaren aurrean datuen tratamenduak mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea ere. | Cuarto.- El tratamiento de datos personales de la gestión de las bolsas de trabajo se realizará en el Registo de Actividades de Tratamiento (RAT) del Departamento de Gobernanza, Administración digital y Autogobierno, denominado “Procesos selectivos”, siendo el órgano responsable la Dirección de Empleo Público y pudiendo ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y supresión de datos, así como la limitación y oposición a su tratamientos ante la Dirección de Empleo Público. |
| (Ebazpen honen eranskinean zabaldutako informazioa) | (Información ampliada en el Anexo a la presente resolución) |
| Azaldutako guztiagatik eta emandako eskumenaz baliatuz, honako hau | Por todo lo expuesto y en virtud de la competencia atribuida, |
| EBATZI DUT | RESUELVO |
| Lehenengo artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako Eraikuntzako Teknikari eskalako lan-poltsan dauden pertsonen zerrenda argitaratzea, Enplegu | Artículo primero.- Publicar el listado de las personas integrantes de la bolsa de trabajo de la escala de Técnico/Técnica de edificación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos tras la reordenación conforme a |

| | |
|---|---|
| Publikoaren sailburuordearen 2025/107 Ebazpenaren irizpideen arabera berrantolatu ondoren.<br><br>Argitalpena Lan Poltsen Atarian egingo da, egoitza elektronikoaren eta honako helbide honen bidez:<br><br>www.euskadi.eus/lanpoltsak<br><br>https://www.euskadi.eus/administrazio-orokorraren-lan-poltsak/web01-sedeep/eu/<br><br>Bigarren artikulua.- Lan-poltsetako langileen zerrendek adierazitako lekuetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.<br><br>Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan Poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.<br><br>Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.<br><br>Enplegu Publikoko sailburuordea<br>MAITE BARRUETABEÑA ZENAKORTA | los criterios de la Resolución 2025/107, de la viceconsejera de Empleo Público.<br><br>La publicación se realizará en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección:<br><br>www.euskadi.eus/bolsastrabajo<br><br>https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeep/es/<br><br>Artículo segundo.- Los listados de personal integrante de las bolsas de trabajo surtirán efecto a partir del día siguiente de su publicación en los lugares indicados.<br><br>Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes desde el dia siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.<br><br>En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.<br><br>Viceconsejera de Empleo Público<br>MAITE BARRUETABEÑA ZENAKORTA |

| ERANSKINA | ANEXO |
|---|---|
| DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA | INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS |
| Tratamendu-jarduera:<br>Datu pertsonalak tratatu eta "Hautaketa-prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira: | Actividad de tratamiento:<br>Los datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: "Procesos selectivos": |
| • Arduraduna: Enplegu Publikoaren Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Publiko eta Autogobernu Saila. | • Responsable: Dirección de Empleo Público, Departamento de Gobernanza, Administración Pública y Autogobierno. |
| • Helburua:<br>o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak enplegu publikoan sartzeko prozesuak kudeatzea.<br>o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea.<br>o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen aldi baterako lan-eskaintzak kudeatzea (eratzea, integratzea eta birbarematzea).<br>o Lan-poltsak osatzen dituzten langileen datuak beste administrazio batzuei jakinarazten zaizkie. | • Finalidad:<br>o Gestión de procesos de acceso al empleo público de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos.<br>o Gestión de concursos de traslados y comisiones de servicios a puestos de trabajo de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos.<br>o Gestión de bolsas de trabajo (constitución, integración y rebaremación), de ofertas de trabajo de carácter temporal de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos.<br>o Los datos del personal integrante de las bolsas de trabajo se comunican a otras Administraciones |
| • Interesdunen kategoriak:<br>o Epaimahaikideak<br>o Hautaketa-prozesuetako parte-hartzaileak<br>o Administrazio orokorreko langileak<br>o Euskal Sektore Publikoko langileen kudeatzaileak | • Categorías de personas interesadas:<br>o Miembros del tribunal<br>o Partipantes en procesos selectivos<br>o Personal de la administración general<br>o Gestores de personal del Sector Público Vasco |
| • Datuak komunikatzeko hartzaileen kategoriak:<br>o Sindikatuak eta langileen batzordeak<br>o Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da. Lan-poltsako langileen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei eta sektore publikoko erakundeei eman ahal izango zaizkie. Sindikatuak eta langileen batzordeak edo Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa. | • Categorías de personas destinatarias para comunicación de datos:<br>o Sindicatos y juntas de personal<br>o Se publica en el Boletín Oficial del País Vasco. Los datos del personal integrante de la bolsa de trabajo podrán ser facilitados a otras Administraciones Públicas y entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| • Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere. | • Derechos: Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional. |
| • Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza ondoko web orrian kontsulta daiteke: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) | • Información adicional: Puede consultarse la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en esta página web:<br>Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) |
| • Araudia:<br>o Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.<br>o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestelpa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. | • Normativa:<br>o Reglamento General de Protección de Datos.<br>o Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. |